



Gurasoen txokoa PIRINIOETAN ELURRETAN

Erreportaia BIZIKIDETZA PROIEKTUA JAKINTZA IKASTOLAN

Ikasleen txokoa BEASAINGO IDAZ-LEHIAKETA



jakintza ikastola

agenda

URTARRILA

HAUR HEZKUNTZA:

Ikasle guztiak: danborrada.

LEHEN HEZKUNTZA

1. maila: D'elikatuz Interpretazio Zentrora .
2. maila: Bilboko Itsas Museora bisita.

DBH:

- DBH 3. maila: eskiatzera Belaguara.
DBH 4. maila: zine emanaldia **Loli**.

BATXILERGOA

Batxi 2. maila: Universidad de Navarra-koek beraien eskaintzaren berri eman zuten..

OTSAILA

HAUR HEZKUNTZA:

Ikasle guztiak: Euskaraz Bizi Festa kalean.

Ikasle guztiak: Euskal Inauteriak.

1. eta 2. mailakoak: herriko antzokian, zinea euskaraz Mozart txakurra.

LEHEN HEZKUNTZA

3. maila: ipuingintza, fantasia, sormena.... tailerra.

4., 5. eta 6. mailak: zinema, **Lepe** pelikula.

5. maila: zuhaitz landaketa Ordiziako Orea parkean.

5. maila: D'elikatuz-era bisita, elikagaien gaia sakonduz.

Maila guztiak: Euskaraz Bizi Eguna Ordiziako kaleetan zehar.

DBH:

DBH 2. maila: Sexu Heziketa. .

DBH 2. maila: IKASPILOTA Urretxun.

DBH 2. maila: irteera Gasteiza egun osorako.

Maila guztiak: Euskaraz Bizi Eguna Ordiziako kaleetan.

BATXILERGOA:

Batxi 2. maila: Unibertsitaterako aurrematrikula.

MARTXOA

HAUR HEZKUNTZA

Ikasle guztiak : Kultur Astea.

1. eta 2. mailak: Kutxa Espaziora irteera.

LEHEN HEZKUNTZA

3. maila: Ahoz aho kanpainaren emanaldia.

4. maila: Labirinto literarioa Zumarragako Zelai Aristin.

6. maila: HAYDN kontzertua Miramonen.

6. maila: Alaitz Olaizola idazlearekin solasaldia.

DBH:

DBH 3. maila: Lagunarteko hizkeraren lanketa Ttakun elkartearen gidaritzapean.

DBH 4. maila: Sexu Heziketa. Hiru saio kanpoko begiraleen gidaritzapean.

BATXILERGOA:

Batxi 1. maila: Laha-Nahia Sexologia Elkarteen gidaritzapean 10 orduko ikastaroa.

Batxi 1. maila: Gipuzkoako Diputazioak babestuta, Tratu Txarrei buruzko bi orduko lan- saioa.

Epelaren zain

Poliki poliki badoa aurtengo ikasturtea ere. Atzean gelditu dira inauterietako mozo- rroak, euskaraz biziko txapelak eta kultur asteko ekitaldiak. Era berean, uste dugu, atzean geldituko direla, gure inguruak behin eta berriz zuritu dituen elurteak. Eguzki izpiak indar handiagoz sentitzen ditugu iadanik soinean. Ez dago zalantzarik, gertu dugu udaberria eta ekar ditzala hain bereak dituen goxotasuna eta edertasuna.

Aktibitate eta ekintza ugari izan dira Jakintza ikastolan bigarren hiru hilabete honetan, horren lekuko, ikastolako gela guztietan berriro egin diren gurasoen bilerak. Zeregin garrantzitsua bete dute geletako ordezkariak bilera horietan eta bidezkoa da behar den moduan eskertzea. Orain Juntari dago- kio gurasoen ekarpenak aztertzea eta modu egokian kudeatzea.

Eta konturatu gabe, sartu gara datorren ikasturteko antolaketarekin. Aste Santuko oporren bueltan galtzak bete lan izango du- gu aurtengoa amaitzen eta hurrengo pres-

tatzen. Baina hori da errealitatea eta Jakintza ikastolako komunitatea ondo trebatu dagoelakoan gaude datorrenari aurre egiteko.

Poco a poco y casi sin darnos cuenta también este curso está llegando a su recta final. Atrás han quedado ya Olentzero, disfraces y nieves; la primavera llama a la puerta.

Durante este trimestre la actividad en Jakintza ha seguido su curso sin descanso, y un claro exponente de ello han sido las numerosas reuniones que han tenido lugar entre los delegados de curso y el resto de padres. Desde aquí queremos remarcar la participación e importancia de todas ellas y recordar que ahora será la Junta la encargada de encauzar las propuestas provenientes de dichas reuniones.

Y así, casi sin darnos cuenta, ya nos vemos de nuevo envueltos en la dinámica del final de curso para empezar a preparar el próximo, que esperamos siga trayéndonos la misma alegría e ilusión.

AGENDA 21: hondakinen kudeaketa

Sortzen ditugun hondakinak ahalik eta hobere- n birziklatzearen, aurten erronka berri bati heldu diogu gure ikastolan:

GAI ORGANIKOEN KUDEAKETA.

Kudeaketa honen barruan ekintza batzuk burutzen ari gara:

- Lorategitik sorturiko adar, orbel, hosto e.a sagastian jarritako konpostagailuan botatzen ditu Nikolasek.

- Jangelan sorturiko barazki eta fruta azalak ikasleen bitartez bildu eta konpostagailuan botatzen ditugu.

- Ikasleen parte hartze zuzena bultzatzearen, astean bitan atsedenerako fruta ekartzera animatzen ditugu, eta sortutako azalak, bes- teekin batera, konpostagailura botatzera.

Bide batez, hamaiketako osasuntsua bultza- tzen ari gara tarte batzuetan.



KONPOSTA, NOLA LORTZEN DA?

Konposta adarrak, hostoak eta janari- hondarrak naturalki deskonposatuz lortzen da. Prozesu horretan mikroorganismoek (bakte-

riek, onddoek...) eta organismo txikiek (zizare eta kakalardoek) beren lana egiten dute.



Materia organikoa konpost bihurtzeko kon- postagailua erabil daiteke. Eguneko zaborraren %33a materia organikoa da eta birzikla daite- ke, KONPOSTA sortuz. Ondoren, lurrera itzuliko da berriro.

Gure ikastetxean, sortutako konpostagailua iraila edo urria inguruan zabalduko da eta sortutako konposta bertako fruta-arbolak eta gainontzeko landareak indartzeko erabiliko da. Horrela, hondakin gutxiago zabortegian.

Queremos impulsar una adecuada gestión de nuestros residuos orgánicos. Para ello estamos procediendo a la recogida sistemática de los restos procedentes de nuestro comedor y de los jardines de nuestras inmediaciones.

Con todo ello y potenciando su descomposición natural estamos elaborando *compost*. En la creación de este humus intervienen distintos tipos de microorganismos que favorecen dicho proceso, y cuyo resultado lo podremos ver allá por el mes de octubre para que posteriormente sea reutilizado en nuestra propia ikastola.

Pirinioak: orain elurra, laster eguzkia

Asteburu zoragarria igaro zuten gure mendizaleek otsailaren 20 eta 21ean, Somportera joan ziren eskiatzera. Ez zebilen inor asko larunbat goizeko seiak aurretik Ordiziako kaleetan.

Ordurako, Arboledako inguruan aparkatuta zeuden bi autobusetara pixkanaka hurbiltzen hasiak ginen Jakintzako mendizaleok, loaren besoetatik erabat askatu gabe gure begiek ikusten zutena sinistu ezinik, kaleetako argien gaitetik negu honetan asko agertu ez diren izarrak sumatzen baitziren.

Seiak eta laurden izango ziren, bi autobus ehun lagunengatik kargaturik herritik atera zirenean. Ekialdera bidaiatuz egunsenti dotore batez gozatu ahal izan genuen, gaitzeka zegoen Esako urtegiaren inguruan.

Eguna ez zen berdin argitu ordea bazter guztietan, hodeiak mendietan trabatuta zeuden eta Somporten espero ez genuen eguraldia topatu genuen. Dena den, etsipena ahaztu eta berehala ekin genion taula gainean harantz eta honantz ibiltzeri eta azkenean ederki pasa genuen elurretan eguraldiak hobera egin zuen eta.

Iluntzean Jacako kaleetan zehar bueltatxo bat egiteko denbora ere hartu genuen eta afaldu ondoren bat baino gehiago loak harrapatu zuen oheratzeko denborarik hartu gabe.



Jakinsaro10

Elurra eta haize-bolara zakar eta bortitzak izan ziren igandeko protagonistak eta nahiko zapuztu zituzten eguna. Batzuek kanpora irten orduko itzuli ziren barrura, bestek bueltatxo bat eman ondoren etsi genuen eta gutxi batzuk oraindik han ibiliko ziren beraien-gatik izan balitz.

Halakoa da mendia eta den bezala maite dugu, horregatik, Pirinioetara hurrengo txangoa prestatzeari ekin diogu ilusioz beterik eta izen emateko epea zabaldu dugu. Parte hartu nahi duzuenok:

www.jakintza.blogsome.com helbidean eman behar duzue izena.

El pasado 20 de febrero el grupo de montañismo de Jakintza realizó una salida a Somport con la intención de pasar un bonito fin de semana esquiendo. La climatología no ayudó demasiado pero la experiencia ha dado pie para ir ya preparando la próxima salida a Pirineos. Toda aquel que quiera tomar parte en ella deberá inscribirse en:

www.jakintza.blogsome.com

Euskal inauteriak

Urtero ohi dugunez, aurten ere, Jakintza ikastolako guraso, ikasle eta irakasleok Euskal Inauteriak ospatu genituen alaitasunez gaitzeka.

Eguraldiak bat ere lagundu ez zigun arren, haize hotzari eta elurrari aurre eginez dotore baino dotoreago irten ginen kalera.

Eguraldi zakurrak ez zuen gure animoak zapuztea lortu eta emanaldi bikainak eskaini zituzten Haur Hezkuntzako ikasleek baita Lehen Hezkuntzako eta DBH1ekoek ere.

Haur Hezkuntzakoek Villa Eugeniaren aretoan dantzatu zuten eta Lehen Hezkuntzakoak Beti Alai frontoian aritu ziren. DBHko ikasleen ake-larrea berriz, bietan ikusteko aukera izan genuen. Berehala berotu genituen barruak eta oihu eta irrintzirik ez zen falta izan.



Han izan ziren Zakuzaharrak, Miel Otxin, Sorginak, Txorimaloak, Kotilungorriak, Baserritarrak, Inudeak eta Artzainak, Abaltzisketako Txantxoak, Luzaideko bolantak, Txori izugarriak,

Joaldunak... denak ilusio eta ahalegin handiz aritu ziren eta txalo zaparrada ugari jaso zituzten.

Bukatzeko, nola ez, gurasoek pertza bete edabe prestatu zuten eta guztiok izan genuen "mama" gozoa dastatzeko aukera.

Como viene siendo habitual también este año hemos celebrado los carnavales en Jakintza. Desafiando a la climatología diferentes grupos de la ikastola ofrecieron sus actuaciones en Beti-Alai y en Villa Eugenia.

Por allí desfilaron muchos de nuestros personajes más característicos y llenaron, por unas horas, Ordizia de ilusión y alegría.

BIZIKIDETZA Jakintan

“ Beharrei era txukun eta egokian erantzuten saiatu gara”

Komunikatzen ikasi, ikasten eta pentsatzen ikasi, egiten eta ekiten ikasi, gizakiok bizitza oso-rako behar ditugun konpetentzia orokorrak dira. Baina zalantzarik gabe esan dezakegu norbera izaten ikasi eta elkarrekin bizitzen ikastea guztiz beharrezko konpetentziak direla. Azken bi konpetentzia horiek garatzera letorke Jakintza ikastolako Bizikidetza Proiektua.

Elkarbizitza eta Bizikidetza eremuan, aurrez lan-keta ugari egin ditugu Jakintza ikastolan, ezin ahaztu orain dela sei, zazpi urte Gernika Gogoratuzen eskutik egindako ahalegina. Beranduago etorri zen Goaz taldearekin egindako formazioa.

Orain dela hiru urte fase berri bati ekin genion Jakintza ikastolan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailaren lehentasunetan sartu zen, bizikidetza proiektuak garatzea ikastetxeetan. Horretarako Berritzeguneeen laguntza izango genuen eta hiru urteetako epean ikastetxe bakoitzak bere bizikidetza proiektua landu eta adostu behar zuen.

Hirugarren ikasturtea dugu aurtengoarekin gure Bizikidetza Proiektua lantzen hasi ginela, Ordiziako Berritzeguneearen laguntzarekin eta aurrez ezarrita zegoen moduan Jakintza ikastolako Bizikidetza Plana adostu eta martxan jartzeko unea heldu da.

Bizikidetza Proiektua lantzerakoan agertu dira erreferentzia berri batzuk ere, honela har daitezke adostokia eta behatokia bezalako kontzeptuak. Izenak dioen bezala, guraso, irakasle eta ikasleek elkarrekin osatutako gunea izango da behatokia. Bere eginkizun garrantzitsuena gure ikastolako bizikidetzari gertuko jarraipena egitea eta dagozkion neurri zuzentzaileak adieraztea izango da.

Bizikidetza proiektua lantzerakoan, Jakintza ikastolako komunitatearen partaide guztiak izan behar ditugu kontuan. Beraz, ezinbestekoa da guraso, irakasle eta ikasleen parte hartzea eta elkarlana. Bilera eta jarduera ugari burutu dira ekimena garatzeko. Iritzi eta ekarpen asko izan dira kontuan.

Argitasun gehiago edukitzearren, irakasle hauengana jo dugu, lehendabizi:

Elena Riaño, Blanka Mujika, Karmele Barandiaran, Iñaki Jauregi, eta Mariaje Aranburu

Zer modutan daramazu orain artekoa?

- Hirugarren ikasturtea dugu aurtengoarekin gure Bizikidetza proiektua lantzen hasi ginela. Proiektua fase desberdinetan garatu dugu.

- Lehenengoa, Sentsibilizazioa izan zen, hiru jarduera landu zirelarik: marko kontzeptuala, giza eskubideak eta bere definizioa, hain zuzen.

- Bigarren, gatazken kategorizazioa eta kausen identifikazioaren diagnostikoa gauzatu genuen. Eta azkenik, lehentasunak finkatu eta kausak helburu bilakatu ondoren planifikazioari ekin genion.



Bizikidetza plana garatzerakoan hezkuntza komunitate osoaren partaidetza bermatua izan al da?

- Gure ustez, bai. Egin diren hainbat bileratan komunitateko estamentu ezberdinetako ordezkariak protagonismoa izan dute, zerbizuetako langileak eta pertsonal ez dozentek barne.

- Haseran, irakasleek eta gurasoek eman zituzten lehen urratsak eta ondoren, ikasleekin osatu zen Bizikidetza batzordea.

Ikastolan bizikidetza kudeatzeko organoa behatokia izango da. Jakin nahiko genuke zein izango diren bere eginkizuna eta ezaugarriak.

- Organo hau Bizikidetza batzordetik sortuko den talde iraunkorra da. Bertan, lau guraso, lau ikasle eta lau irakasle izango dira. Talde honek harreman positiboak eta bizikidetza osasungarria erakitzen laguntzea eta bermatzea izango du xedetzat.

- Komunitatekide guztiak baloratuak direla sentitu dezaten lortzea, baita guztiei entzun egiten zaiela adieraztea eta partaide direla sentiaraztea izango da eginkizun nagusia.

- Halaber, erabakiak hartzeko orduan ardura badutela eta ikastetxeko bizitzaren parte aktiboa direla bereganatu behar dute.

Bizikidetza esparrua arautzeko helburuarekin ikastolako araudia berritzea eta eguneratzea behar-beharrezkoa da. Nola joan da prozesu hori?

- Ikasleen eskubide eta betebeharrei buruzkoa dekretua eta lehendik ikastolan genuen barne araudia oinarritzat hartuz, lehen zirriborroa prest dago.

- Une honetan zenbait ekarpen jasotzen ari gara eta lehenbailehen pronto izango dugu dokumentua.

Araudian jasotako eskubideak eta betebeharrak urratzen direnerako, zein da egiten duzuen proposamen edota irtenbide?

Araudiko zenbait ataletan zuzendu beharreko jokabideak deskribatzen dira eta neurri zuzentzaile ezberdinak proposatzen dira. Hiru mailatan sailkatuta daude aipaturiko jarrera hauek: jokabide desegokiak, bizikidetzaren aurkakoak eta bizikidetzan kalte larriak eragiten dituztenak.

Beste berrikuntzetako bat bide alternatiboaren proposamena da. Jokabideak zuzentzeko neurriak ez dira finkoak eta mugiezinak; auktura izango baita, baldintza batzuk betez gero, neurri horiek eten, arindu eta kentzeko.

Planaren bigarren helburua honako hau da: “ikastola barruko zein kanpoko ekintzetan Jakintza ikastolako komunitatearen partaidetza eta komunikazioa areagotzea eta hobetzea”. Zein ekintzen bidez burutu nahi duzue komunitate osoaren inplikazioa hau?

Batetik, geletako ikasle eta guraso ordezkariekin eginkizunen lanketa egingo da zuzendaritza eta irakasleriaren ardurapean. Bestetik, gurasoen artean informazioa trukatzeko foroa sortuko dugu. Gainera, herrian garatzeko ekintzen artean Olentzero, Ikastolaren eguna, Euskaraz Bizi eguna ... guraso, ikasle eta irakasleen arteko partaidetza areagotuko genuke. Honetaz gain, bizikidetza behatokia martxan dago jadanik.

Gustura zaudete jendearen erantzunarekin?

Une honetan oso gustura gaude; gurasoen partaidetza ezinhobeia izan dela esan genezake eta ikasleek ilusio handiz hartu dute orain arte emandako urratsak, ekarpen ugari eginez.

Gu behintzat, bai, gustura eta zuen lana zeharo miresten dugula. Eskertzea baino ez zaigu geratzen. Eskerik asko.

.Guraso moduan zerbait gehiago eman behar genuela iruditzen zitzaigun

Bizikidetza Proiektuaren bigarren hanka gurasoak ditugu. Horietatik batzuk erantzun digute: Izaskun Irastorza, Arrate Leunda, Rosa M^a Llorente eta M^a Jose Arratibel.

Jakintza ikastolako Bizikidetza Proiektuaren garapenean bete bete sarrutak zaudete. Seguru gogoan bete lan baduzuela.

Noiz eta nola jakin zenuten plan horren berri?

Izaskun Irastorza: Orain dela 2 urte inguru, guraso ordezkarien bilera batean

Arrate Leunda: Ikastolatik deia jaso genuenean. Oraingo hau hirugarren ikasturtea da.

Rosa M^a Llorente: Nik parte hartzen dut Bizikidetza Proiektuan.

M^a Jose Arratibel: Orain dela 3 urte, guraso ordezkaria nintzenez, proiektu hau martxan jartzeko asmoa azaldu ziguten bilera batean, eta Bizikidetza planean sartu ginen guraso talde bat.

Lan handia izan al zuten (proposatu zizuenek) zuek parte hartzeko konbentzitzen?

I. I.: Ez; ideia ona iruditu zitzaigun. Hasiera batean, 3 urte luze xamarrak iruditu arren, oso azkar igarotzen dirrela jabetu ginen.

A. L.: Guraso ordezkariengana jo zuten, eta lehenengo bilera hartara gutxi azaldu ginenez, ez zegoen ezetz esaterik.

R. M. LL.: Ikastolatik deialdia iritsi zenean parte hartzea erabaki nuen, gaia interesgarria eta beharrezkoa irukitu zitzaidan.

M. J. A.: Hasiera batean nik uste kostatuta zitzaidala, baina azkenerako lortu zuten ni konbentzitzea.

Horrek esan nahiko luke (aurrekoaren erantzuna positiboa bada), planaren onura edo beharrak berehala antzeman zenituztela...



I. I.: Bai segituan jabetu ginen bizikidetzako proiektuan parte hartzea oso ideia onuragarria zela, bai guraso, ikasle eta irakasleentzat.

A. L.: Plana denon artean egin beharrekoa da, nahitaez. Guraso moduan zerbait eman behar dugula iruditzen zait, eta hau bide bat gehiago da.

R. M. LL.: Lehen diodan bezala, beharrezko eta garrantzitsua iruditzen zait.

M. J. A.: Gehienbat planaren nondik-norakoa ikusteko hasi nintzen honetan.

Guraso izateak badarama berekin halako partzialtasun bat zenbait egoera aztertzerakoan; eragozpenik (liskarrik) sumatzen al duzue ikasleentz (zuon seme-alaben) eskubideak eta betebeharrak uztartzeari?

I. I.: Ez. Ikasleak jabetzen dira euren eskubide eta betebeharrak; izan ere, horretarako dago araudia. Horretan, zerkusua dauka gurasoen partaidetzak; izan ere,

batzuk ez dira jabetzen arazoaren aurrean nora jo behar duten. Ohar daitezkeen: lehenik ordezkariengana jo behar da eta ez zuzendariengana. Hau lantzen ari garen ideietako bat dela kontuan harturik.

A. L.: Gurek, oraindik, 4 eta 6 urte dituztenez, ez dugu eragozpenik sumatzen. Hemendik urte batzuetara... auskalo!

R. M. LL.: Gure kasuan garbi daukagu guztiok eskubideak eduki ahal izateko, betebeharrak ere bete behar ditugula.

M. J. A.: Zenbait egoeratan, bai.

Plana burutze horretan, zertan oinarrituko zenituzke gurasoen ekarpenik garrantzitsuenak: ikasleengana daukaguzuen sentsibilitatea berezian, seme-alabengan duzuen autoritatean (irakasleei laguntzeko balio du), aitatasunak (eta amatasunak) ematen dizuen seme-alaben onerako grinan, hezkuntza egoki eta aberats baten partaide izateko atseginean... ?

I. I.: Bizikidetzako oinarria, hezkuntza egoki eta aberats baten par-

“...Hezkuntza egoki eta aberats baten partaide izateko atseginean saiatu gara”

taide izatea da, beti ere, gure seme-alaben onerako.

A. L.: Hezkuntza egoki eta aberats baten partaide izateko atseginean, gainera, horrela, gauzak gaizki ateratzearen kulpa besteei botatzeko tentazioa ere ekidin egingo dugu.

R. M. LL. Denekin ados, baina azkenekoa azpimarratuko genuke.

M. J. A.: Gurasoon proposamenean zeresan handia dutela uste dut, izan ere, gu gara ikasleekiko azken erantzukizuna dugunak, eta gure seme-alabentzako zer nahi dugun irakasleek ere jakitea ezinbestekoa da bizikidetzara hobe lortzeko.

Hiru urteko prozesu honetan, eragozpenik izan al duzue?

I. I.: Bizikidetzako oinarria, hezkuntza egokia eskaintzeko denok parte hartzen dugu gure iritziak emanez.

A. L.: Talde txikia izan garenez, erraza izan da. Orain dela gutxi, gainontzeko guraso ordezkariari deia zabaldu genien. Dexente hurbildu ziren, eta talde txikitik aritu ginen. Oso aberatsa gertatu zitzaigun.

M. J. A.: Bat edo beste beti gertatzen da, baina aintzakotzat hartzeko modukorik ez.

Gurasoen betekizunak ikastolaraino luzatzen direna badakigun arren, ez da beti erraza izango lanerako deitu eta bat-batean erantzutea, tartean deiezioak ere izaten baitira. Orain artekoa zuk pentsatu moduan al doa?

I. I.: Bai, orokorrean bai. Hala ere, guraso batzuen jarrera ez dela oso egokia deritzot; izan ere, batzuk ez dira jabetzen arazoaren aurrean nora jo behar duten. Ohar daitezten: lehenik ordezkariengana jo behar da eta ez zuzendariengana. Hau lantzen ari garen ideietako bat dela kontuan harturik.

A. L.: Jakintzako guraso guztien ordezkari bost edo sei guraso izatea, ez al da deiezio jasotzeko modukoa? Eskerrak aritu garenok ahal



duguna eman dugula!

R. M. LL.: Agian deiezioak baino gehiago denbora falta sumatzen dugu; ikastolako eginkizunetan parte hartuz gero seme-alabarentzat denbora gutxiago geldituko zaigu.

M. J. A.: Iazko zenbait arazorekin hartu ziren neurriekin oso ados geratu ez banintzen ere, orokorrean ez dut uste inongo kezarik dudarik.

Ba al da ezer zuzendu edo hobetuko zenukeenik?

I. I.: Bai hobetuko nuke gurasoen partaidetza. Informazio faltagatik batez ere, ordezkari txikia da, eta nire iritziz, gaiak interesgarriak direnez lantzea merezi duela uste dut.

A. L.: Guraso gehiago lortu behar genituen, eta egun puntual hortan izan zen dinamika errepikatu. Jendea oso gustura aritu zen.

R. M. LL.: Ondo egongo litzateke gurasoen partaidetza handiagoa izatea eta horretarako behar den motibazioa bilatu beharko genuke.

M. J. A.: Ez, arazoaren bat dagoen bakoitzean beharrezko neurriak har-

tzen baitira, eta gurasoi ere egokiararen berri ematen baitigute, arazoa konpontzeko zein pauso eman diren azalduz. Hala ere, arazoaren bat dagoenean, gurasoek ez gara beti jakinaren gainean egoten ikasleak ez badu etxean ezer kontatzen. Horregatik, beharrezko ikusten dut gurasoen artean horrelako kontuez hitz egiteko baliabideren bat sortzea.

Zein litzateke zure balorazioa, orain artekoa emaitzari eta geroko asmoei buruz?

I. I.: Oso positiboa. Asmoak ugariak eta onak dira, eta aukera polita da elkarlanean aritzeko, beti ere, elkar errespetatuz.

A. L.: Ona, gai batzuren inguruan azterketa sakona egiteko bidea delako.

R. M. LL.: Orain arte ondo doa, ikusiko dugu gero ze eragin duen.

M. J. A.: Orain artekoa nahiko ondo doala esango nuke.

Orduan, eskertzea baino ez dugu, egindako ekarpenengatik. Jarraitu horrela, gure jardunak ere emaitza hobeak sor ditzan. Mila esker.

“...Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko errespetuzko jarrera izatea, nahi genuen”

Hirugarren saila ikasleak osatzen dute. Hona batzuen iritzia: Mikel Aizpurua, Beñat Irastorza, Lierni Garmendia eta Itsasne Crehuet. *Bizikidetza planean esku hartu duzue, interes eta trebezia handiz, gainera...*

Noiztik ari zarete eginkizun horretan eta zertan datza zuen eginbeharra?

Taldea duela hiru urte sortu zen eta LH, DBH eta DBHOKo ordezkariok planaren oinarriko ekintzetan parte hartu dugu, irakasle eta gurasoekin batera. Guztion artean, ikastolako bizikidetza dugu helburu.

Zer da zuentzat bizikidetza kontzeptuak adierazi nahi duena?

Egunerokotasunean sortzen diren gatazken aurrean Hezkuntza komunitateko kide guztien arteko errespetuzko jarrera izatea.

Zuen ustez, zeintzuk dira lehentasuna beharko luketen gaiak?

Lierni eta Itsasne (DBHko ikasleak): DBHko ikasleok, atsedenetan, pasilloetan egoten gara eta ikastolan sartzen den edonorentzat ez da oso atsegina izaten. Horregatik, atsedenetarako gela baten beharra dugula azpimarratu nahi genuke. Bestalde, ikasle eta irakasleen arteko harremanak estutu eta sakontzeko bakarkako tutoretza beharrezkoa ikusten dugu guztiok, baita irakasle eta gurasoak ere.

Beñat eta Mikel (DBHOKo ikasleak): Ikasleen eragina zuzena dutenak, batez ere. Horien artean aipatzekoak dira: atsedenetan gelan geratzeko eskubidea (DBHko ikasleak) eta bakarkako tutoretza indartzea.



Dagoeneko, Barne Araudia berriaren premia aipatu zaizue. Zer duzue esateko horri buruz?

Urteko Bizikidetza planean txertatu dugu eta ikasturte amaierarako adostuta edukiko dugu. Ekarpinak egiteko aukera Hezkuntza komunitateko kide guztiak izango dugu.

Nolakoa da zuen partaidetza Bizikidetza Behatokia?

Lierni eta Itsasne: Bizikidetza Behatokia DBH eta DBHOKo 4 ordezkari izendatu ditugu eta irakasle eta gurasoek ere launa ordezkari aukeratu dituzte.

Mikel eta Beñat: Hirugarren hiru hilekoan martxan jarriko den plan honetan gure parte-hartzea zuzena izango da. Bizikidetza Batzordean onarturikoa betetzen dela bermatzea da gure eginkizun nagusia. Horrez gain, urtean zehar sortzen diren gai, ekintzak edo lege berriak aztertu eta eztabaidatzeaz arduratuko gara guraso, ikasle eta irakasleen artean.

Gustura eta eroso sentitzen al zarete egiten duzuen bileretan?

Itsasne eta Lierni: Bai gustura egoten gara. Bileretan gure iritzia emanez, esku har dezakegu eta gainerako kideen iritzia eta proposamenekiko gure ikuspuntua azal dezakegu. Hau ere beharrezkoa dela uste dugu, horrela guztion artean hartzen baititugu erabakiak, guztion oniritziarekin.

Beñat eta Mikel: Bai, giroa egokia da eta guregan eragina duten gaiak edo eskubideei buruz iritzia emateko aukera dugula sentitzen dugu.

Bada, emaitza ikusi, eta esku hartu duen artean sortu duen asetzea eta poza somaturik, atseginez zorientzea baino ez zaigu geratzen. Zorionak.

Aprender a comunicarse, aprender a pensar, saber hacer y ejecutar son competencias necesarias para todo ser humano. Pero, sin duda alguna, aprender a ser uno mismo y saber convivir resultan competencias imprescindibles y son éstas, precisamente, las que se desarrollarán en el Plan de Convivencia de Jakintza.

Hace tres años emprendimos una nueva tarea en la que a petición de la Delegación de Educación del Gobierno Vasco se invitaba a todos los centros a la elaboración y futuro acuerdo de un Plan de Convivencia.

“**Bizikidetza Behatokia**”, el nuevo órgano que gestionará el plan de convivencia, está compuesto por alumnos, padres y profesores y serán todos ellos quienes garanticen que dicho plan, en nuestra ikastola, es un hecho.

La pieza clave de este proyecto es la participación de toda la comunidad escolar y todo lo que ello implica como es la riqueza del trabajo en equipo, la pluralidad, etc.

Según explican los profesores que participan en dicho proyecto, son tres las fases que ya han realizado. **a)** sensibilizar a toda la comunidad escolar de la necesidad de elaborar el plan; **b)** hacer un

diagnóstico y detectar aquellos puntos débiles a corregir y **c)** convertirlos, a su vez, en objetivos principales del plan.

En un primer momento se reúnen padres y profesores, sumándose, posteriormente, delegados de alumnos.

El equipo de trabajo está ahora inmerso en la tarea de adecuación del *Reglamento Interno de Jakintza* al nuevo *Decreto sobre Derechos y Obligaciones de los estudiantes*. Por ahora, nos indican que ya está diseñado el borrador.

Izaskun Irastortza, Arrate Leunda, Rosa M^a Llorente y M^a José Arratibel son algunos de los representantes de padres implicados en la tarea de la elaboración del Plan de Convivencia.

Mikel Aizpurua, Beñat Irastorza, Lierni Garmendia e Itsasne Crehuet son algunos de los delegados de curso que colaboran en el desarrollo de este proyecto. Estos jóvenes hacen hincapié en lo que para ellos es convivencia: “Mostrar una actitud de respeto entre todos los miembros de la comunidad escolar ante el tratamiento de los conflictos que puedan generarse en la convivencia diaria”.

Beñat y Mikel subrayan lo interesante que resulta la opción de poder presentar enmiendas al borrador del Reglamento Interno

Jolastokiko arauak gogoratzen

Dakizuen bezala, Haur Hezkuntzako eraikuntza irekita egoten da 16:30-etatik 18:00etara.

Honela, zenbait guraso eta aiton-amona, kanpoan giro txarra dagoenean, bertan egoten dira goxo-goxo, beraien seme-alaba eta ilobekin jolasean.

Erabilera guztiz egokia ez dela ikusita, arau batzuk gogoraraztea erabaki dugu:

Zenbait eremu, klase orduetan bakarrik erabili daitezke, beraz, 16:30etatik aurrera errespetatu beharko genituzke: gelak, haurtzaindegia, irakasleen eremua, goiko eta alboko pasiluak...

Arrisku guneak saihestu: etxe-txoaren tei-latura, eskaileretara, bulegoko leihoetara, edo saskibaloiko saketara igo gabe adibidez.

Jolas egokiak aukeratu, zenbait jolas beheko patioarako utzi, hala nola, baloi gogorrak, patinak, patineteak eta antzekoak.

Komuna behar duzuenean 3.C erabili.

Ordutegia errespetatu. Garbitasunekoak jo-



lastokia libre behar dutelako bere lana burutzeko. Ez dezaiegula gure erruz bere irteera ordua berandutu.

Badakizue orduan, hurbiltzen diren zuen senitartekoei, honen berri ematea eskertuko genituzke. Ea horrela, denon artean, gure ikastola ondo zaintzen dugun.

El edificio de Infantil está abierto desde las 16:30 hasta las 18:00 h. Los peques, de este modo, pueden disfrutar junto con sus padres o abuelos cuando el tiempo no acompaña.

Os queremos recordar las normas de uso del edificio:

- A partir de las 16:30 h NO se puede acceder a las aulas, guardería, oficina del profesorado ni pasillos.

- Evitar zonas de riesgo: tejado de la casita, escaleras, ventanas y canastas.

- Elegir juegos apropiados y evitar balones duros, patines, patinetes etc. Éstos los dejaremos para la zona de patio.

- Aseo: 3C

- Respetemos el horario establecido para que éste no afecte a las trabajadoras de la limpieza.

Transmitid estas normas a los familiares que acudan al centro.

Zuhaitz eguna 2010

Lehenengo batean "Zuhaitz eguna" zela eta, udalak zuhaitzak aldatzeko aukera eskaini zigun. Gure 5. mailako neska-mutiek ez zioten gonbiteari muzin egin eta han joan ziren gogotsu goiz ederra pasatzeko asmotan.

Orexa parkeko lorategian, Santa Amalia kaleko etxe parean, gorosti ilara landatu zuten, denak zuhaitz emeak, hazi gorriak baitzuzten.

Gure lana erraztearren, joan aurretik, herriko lorategiko langileek zuloak eginak zituzten eta behar genuen materiala prest.

Zer egin genuen guk? Landarea zuloan sartu, alboetako lurra aitzurraz xehatu eta zuloak bete, ondoren ondo zapaldu. Landatu, landatu genituen, baina baita konpromisoa hartu ere aurrerantzean ondo zaintzeko hazi bitartean.



Esaera zahar batek dio, bizitza honetan hiru bete behar ditugula: haur bat izan, liburu bat idatzi eta zuhaitz bat landatu. Gure ikasleek bizitzan egin beharreko bat bede-ren bete zuten lehenengo egunean.

Recientemente se ha celebrado con la colaboración del Ayuntamiento el "Día del Árbol". Nuestros alumnos de 5º no podían faltar a la cita y procedieron a plantar en el parque Oresa unos jóvenes ejemplares de acebo. A la vez que introducían las raíces en la tierra, iban romando el compromiso de ayudar y proteger su posterior crecimiento y desarrollo, para que dentro de unos años esos mismos árboles puedan ser admirados por esos mismos niños.

Sexu lanketa DBH 2 eta 4an

Denok izan ditugu hamabost urte, denok izan gara gazte, eta badakigu aldaketa anitzeko garai horretan zailantza ugari sortzen zaizkigula zenbait gairen inguruan.

Batzuk gaur egungo baliabide modernoek baliatuz argitzen ditugu, beste batzuk lagunei galdetuz, besteak gurasoei....

Baina bada gai bat askotan atzera egiten diguna oraindik ere: sexua da, hain zuzen.

Horrexegatik, ikastolan, duela bizpahiru urtetik hona, Lilima sexu heziketako taldearekin bat eginda, sexuaz hitz egiteko eta lanketa bat aurrera eramateko tailerrak antolatzen ditugu: norbere burua ezagutu, aldatuz jabetu, sentimenduez hitz egin, ardurak bereganatu...



Lanketa hori, bereziki, DBH 2 eta 4koekin burutzen dugu. Baina gaiarekiko hurbilketa eta lanketa beste mailatako ikasleekin ere egiten dugu, beste baliabide batzuk direla medio, noski.

Es indudable que todavía hoy uno de los temas que más reticencias provoca entre todos nosotros seguir siendo el sexo. Por ello, estos últimos años y de la mano del colectivo "Lilima" llevamos a cabo en la ikastola unos talleres de orientación sexual dirigidos a los alumnos de 2º y 4º de ESO en los que tratan el tema quitándole esa visión tabú.

Udako plangintzearik bai

Atokan dago uda! Esango du batek baino gehiagok eta ez zaio arrazoirik falta. Oraindik urruti dakusagu opor luzeen itzala. Baina, guk, zenbait ideia eskaini nahi dizugu lagungarri izango zaizulakoan zure seme-alaben oporrak antolatzekean. Gustukoren bat aurkitzen baduzu, ikastolan bertan daukazu informazio gehiago.

Jakintza ikastolan zer?

ZER	EUSKAL UDALEKU IREKIAK
NON	JAKINTZA IKASTOLAN
NOIZ	EKAINAREN 23tik UZTAILAREN 23ra 10:00etatik 12:30etara.
NORENTZAT	2 eta 7 urte bitarteko haurrentzat

ZER	INGELES UDALEKUAK
NON	JAKINTZA IKASTOLAN
NOIZ	EKAINAREN 23tik UZTAILAREN 23ra
NORENTZAT	LH1, LH2, LH3, LH4, LH5, LH6

ikastolatik kanpo zer?

ZER	EUSKAL UDALEKU ITXIAK
NON	ETXARRI ARANATZASA IKASTOLA (Labarca)
NORENTZAT	8 - 10 urte 10 - 12 urte

ZER	INGELES UDALEKUAK
NON	ONDARROA - BERMEO - ZARAUZ - SOPELA
NORENTZAT	10-12 urte 11-13 urte 12-14 urte 13-16 urte

ZER	ARABA, BIZKAIA ETA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAREN UDALEKUAK
NON	Zuhatza, Barria, Gorliz, Lauaxeta, Urduña, Orio, Zarauz, Hondarribia, Astiz...
NORENTZAT	7-13 urte

Baita ere:

ATZERRIKO EGONALDIAK 13 - 17 urte

KALE ART 12 - 16 urte LEKEITIO

GAZTE EGONALDIAK 12 - 18 urte ESPEJO

Utikan aspertze kontuak! Ondo pasa eta gozatu!

Ba ote dakigu zer jaten dugun?

LHko lehenengo mailako ikasleak Txanela proiektuaren barruan "Gorputza zain dezagun" gaia lantzen aritu dira. Bizitzeko jatea behar-beharrezkoa dela ikasi dute, janariaren bitartez lortzen baitugu egunero behar dugun energia. Eta gainera, osasuntsu egoteko egoki jan behar dela, elikadura eta osasuna ezin baitira bereiztu.

Baina, ba al dakigu zer den egoki jatea? Honetaz gehiago ikasteko asmotan Ordiziako "D'Elikatuz" interpretazio zentrorra joan eta "D'Elikatuz mokau batean" Unitate Didaktikoa landu dute.

D'Elikatuzera eginiko bisitan, lehenengo, beharrezko informazioa jaso dute eta ikasleak motibatu dituzte. Ondoren, Unitatea landu dute jolas moduan.



Galdera sorta zuen talde bakoitzak, eta hauek erantzuteko D'Elikatuzeko eremuan atzera eta aurrera ibili dira erantzunen bila. Talde lan bikaina!: guztiak ikasi dute zer den egoki jatea!

Los alumnos de 1º Primaria, dentro de una unidad en la que estaban trabajando la importancia de la alimentación en el cuidado de nuestro cuerpo, han realizado una visita al centro D'Elikatuz.

Allí, divididos en distintos grupos y en un ambiente distendido, han ido analizando las propiedades de los componentes más adecuados e imprescindibles en nuestra dieta diaria. El trabajo realizado ha resultado para todos claramente positivo.

Jakintzako DBH 3ko ikasleek iraupen skia belaguan

Aurten ekimen berria gauzatu dugu. Ohartu ginen nahiko bazterturik genuela eskiarekin lotutako irteera egitea. Bestalde, jakin badakigu ikasle helduek oso gustuko dutela. Beraz, zerbait berria egiteagatik eta gure arteko harremanak sendotze aldera, Belaguara jo genuen urtarilaren 13an.

Beraz, goizeko 7:30ean irten ginen Ordiziatik. Han, iraupen eskia egin zuten. Aurrez, noski, hiru orduko ikastaroa jaso zuten, eta hori nahikoa izan zuten ondorengo orduetan eskiaz benetan gozatzeko.

Eguna labur gertatu zitzaizen, izan ere, gustuko lekuan aldaparik ez baita izaten. Beraz, penaz bada ere, trasteak jaso eta etxerako bidea hartu genuen. Bidean solasgai bera: datorren urtean bi egun ezta?



Los alumnos de 3º de ESO han podido disfrutar de una nueva actividad que en los últimos años estaba un tanto olvidada en Jakintza. El pasado 13 de enero se desplazaron a Belagua y allí, después de realizar un breve curso de iniciación, gozaron del esquí durante unas inolvidables horas en las pistas de Larra-Belagua. Al terminar la jornada la sensación de haber pasado un bonito día era manifiesta en los rostros de los jóvenes.

Kultur astea

Martxoaren azken aurreko astea, aste berezia izan zen Jakintzan. Udaberria esnatzearekin batera Jakintzaren laranja koloreak ostadarraren kolore guztiak bereganatu zituen. Aste hori inoiz baino koloretsu eta alaiagoa bihurtu zen. Gure Kultur Astea ospatu genuen.

Mota guztietako ekintzak burutu genituen: Haundiak Txikiekin jolasean, Txikiak Haundiei abestiak eta antzerkiak eskeintzen, irteerak udaberriari ongi etorria emateko, hitzaldiak, idazleekin solasaldiak, pintxo lehiaketak, altxor bilaketak, kaleetan marrazten, pelikulak euskaraz,



mahai jolasak... Denetik egin genuen aste horretan.

Egunerokotasuna alde batera utzi eta ostadarraren koloretan murgildu gi-nen guztiok elkarrekin.

Dándole la bienvenida a la primavera, hemos celebrado la última semana de marzo nuestra semana cultural. A lo largo de esos días hemos compuesto canciones, escuchado conferencias, intervenido en debates, elaborado suculentos pintxos, visionado películas, intercambiado experiencias Primaria- Secundaria, jugado, dibujado, divertido... En definitiva, hemos continuado aprendiendo a ser un poquito más felices.

HITZEKIN JOLASEAN, GUSTURA

BERTSOGINTZA

Jakintzan, denok dakizuenez, ahoz-kotasuna lantze aldera, bertsolaritza lantzen dihardugu aspaldidanik. Azken urteotan, ordea, inoiz baino era sistematikoagoan heldu zaio gaiari.

Horrela, gurekin izaten da Amaia Agirre bertsolaria astero LHn.

Bestalde, DBHkoekin komunikazio tailerrean lantzen da, besteak beste, bertsolaritza. Horren harira, aurtan, Beasaingo lehiaketara aurkeztu dira ikasle batzuk. Eta, hara nola, Maite Crehuetek, DBH 2 A gelako ikasleak, lehen saria eskuratu du. Hori dela eta, berarengana hurbildu gara. Izan ere, zer gutxiago! Hona bere azalpenak:

Ezustekoa izan da edota nolabait zerbait espero zenuen?

Egia esan ez nuen espero inondik ere irabaztea. Banekien zaila izango zela guztiz, baina ahalegin handiak



egin ditut prestaketa lanetan. Gainera, nire lehen aldian izan da mota horretako lehiaketan parte hartu dudala; beraz, ezusteko atsegina izan da.

Hitzekin jolasean eroso sentitzen al zara? Kontatu zure esperientzia.

Bai, eta batez ere bertsotan. Nobelak edo ipuinak idatzi behar ditudanean ez naiz hain eroso sentitzen.

Beasaingo lehiaketarako prestaketa berezia egin zenuen?

Beno, bereziki komunikazio tailerreko klasetan aritu naiz, eta lan horretan Manu irakaslearen laguntza behar-beharrezko izan dut, noski.

Beste zerbait aipatu nahi duzu?

Zer esango dut, bada? Bertso munduan gustura sentitzen naizela eta horretan jarraituko dudala. Nola ez dut, bada, jarraituko horrelako saria jaso ondoren?

Idaztea eta sariak lortzea badatorrenean

Iaz genioen gustura idaztea, bere horretan, saria dela. Baina zure kasuan, horrez gain, lortu dituzu sari gehigarriak ere. Eta bakarren bat ez nolana hiko. Iaz Urruzuno saria lortu zenuen, gazteentzat dagoen saririk onena edota onenetakoa, eta hamar eguneko bidaiatzat gozatu ere bai. Aurten Beasaingo Lehiaketan ere irabazle izan zaitugu. Beraz, sariak errenkadan datoz. Hasteko, beraz, zorionak, soberan merezi dituzu eta. Ia aurten ere Urruzuno eskuratzen duzun.


Beraz, irakurtzea eta idaztea gogoko duen harribitxia zaitugu. Idazle ona, ezinbestean irakurle sutsua izan ohi baita. Zer diozu horretaz? Zein da zure esperientzia?

Dударик gabe esan daiteke, ene iritzi, ez dagoela aurrez irakurri gabe idazteko gai denik. Idaztea idazle baten parte den unetik, barnetik irteten zaion zerbait da, baina ez aurrez ikasi ez badu.

Bizidun bat ibiltzeko, hitz egiteko eta batuketa bat askatzeko gai da, mekanikoki, beste edozein bizidun bezala; baina ez aurrez eginiko lanketarik gabe. Denoi irakatsi behar izan digute oinez ongi ibiltzea lortu dugun arte, eta berdin hizkuntza eta zenbakiak. Gurekin daramagu, baina kanpotik irakatsi digutenari esker.

Idaztearekin berdin gertatzen da; idaztera iritsi aurretik asko irakurri behar da, eta gero saiakera batzuk egin; lurrera erori, belaunak urratu, altxatu eta berriz ere saiatu. Erortzen ikasten da oinez, eta irakurtzen ikasten da idazten. Bata gabe ez dago besterik.

Nik irakurtzea atsegin dut, eta askotan ez dut –zoritarrez- nahi adina denbora bilatzen horretarako. Baina ziur nago irakurri dudanarengatik ez balitz ez nituela irabazi ditudan sariak irabaziko.



Har dezagun ardaztat Urruzuno saria. Zer idatzi zenuen? Nola sortu eta garatu zen zure ekoizpena?

Zaila zait lehengo urteko ipuina azaltzen, zertaz doan argi badut ere. Horrelako sari bat irabazteko, zerbait originala eta ezustekoa idatzi beharko nuela argi nuen, eta beraz buelta asko eman nizkion istorioa guztiz irutea lortu nuen arte. Eta beharbada horregatik gertatzen zait hain zaila laburtzea.

Arratsalde batez Tokiora doan tren bat hartzen duen neska japoniar bati buruz doa, eta bidaiari zehar zenbait ustekabeko gertaera –denak euren artean lotuak- jazotzen zaizkio. Gertaera horiek lotuz ustekabeko amaiera bat dauka ipuinak. Hori da, funtsean, istorioaren ardatza. Hortik aurrera hitz egitea istorioan bertan murgiltzea litzateke, eta ez da hori laburpen baten helburua.

Aurrez esan bezala, behin istorioa guztiz zehaztuta nuela idazteari ekin nion larunbat goiz batean; hasi eta bukatu. Buruan argi izaten dut esan nahi dudana, eta beraz azkar idazten dut. Horregatik dituzte, ziurrenik, hain deskripzio eta azalpen gutxi nire istorioek.

Iazkoak utzitako zapora gozoaren ondoren, zer fasetan dago aurten Urruzuno lehiaketarako idazten ari zarena?

Onartu behar dut sariak benetan merezi duela istorioa idazteak eskatzen duen esfortzua. Itzulitakoan dudarik ez nuen hurrengo urtean berriz ere saiaturik nintzela, inoiz baino gehiago. Eta jada idatzi eta bidali dut nire lana.

Gaiari dagokionez, oraingo honetan idazten ari den idazle bati eta bere alaba kazetariari buruz idazten saiatu naiz, met-literatura moduko bat eginaz. Irabazteko zortea izaten badut kontatuko dizuet gehiago ipuinari buruz [barrea].

Eta Beasaingo sariak? Zer idatzi zenuen lehen saria lortzeko?

Beasaingo lehiaketarako idatzi nuen ipuina gehiago landu nuen, nire ipuinek izan ohi duten tonu malenkoniatsu bera badu ere .

Aspaldi izan zuen maitale bat hil dela konturatzean 50 urte lehenago eginiko promesa bat betetzera abiatzen den agure bati buruz idatzi nuen, bidaiari zehar bere gaztaroa gogoratzen duena. Bere eta maitalearen arteko amodio-kontuak edesten dira, egun agureak maitalearenganako sentitzen duenaren azalpen gisa. Amaitzeko, honek ere gordetzen ditu zenbait ezusteko.

Zer iritzi duzu honelako sariei buruz? Ba al dute, zure ustez, eraginik idaztea atsegin duten gazteetan?

Oso aberasgarriak aurkitzen ditut lehiaketa hauek, hainbat arrazoiengatik.

Alde batetik, helburu bat jarrita idazteak asko laguntzen du, “presio” txiki bat eraginez ahal bezain ongien idaztera bultzatzen baitzaitu.

Gainera, eta irabaztea lortzen dutenengan, idazteko gogoia sustatzen du, sariak ematen duen pozak akuilatuta, eta –beharbada- etorkizunean umotuko den zaletasun baten hazia ereinez.

En el certamen literario organizado por el Ayuntamiento de Beasain este año han resultado galardonados dos nuevos alumnos de Jakintza, Beñat Irastorza y Maite Crehuet.

El primero de ellos, que añade esta distinción a la conseguida el año pasado en el Premio Urruzuno, subraya la importancia de la lectura como paso previo a una escritura de calidad. Beñat, al hacer una breve sinopsis de la historia del año pasado nos recuerda todo el trabajo anterior, previo a su definitiva redacción, y nos anuncia que para esta edición ya ha presentado una narración basada en la relación entre un escritor y su hija pe-

riodista.

Por otra parte, recuerda que en la historia que resultó premiada en Beasain se narra en tono melancólico los sentimientos amorosos de una persona hacia su amante recientemente fallecida.

En el turno de Maite Crehuet, esta joven alumna de 2º de ESO, manifiesta su sorpresa y satisfacción por el éxito logrado y reconoce que se siente más cómoda en el mundo de los versos que en el ámbito narrativo.

En nombre de Jakintza Ikastola, sólo nos queda felicitar y animar a estos dos jóvenes escritores.



1986. urtean jaiotakoak Errealeko Aranzabal eta Lopez Rekarte jokalariekin

Altamira auzoa z/g
tfno. 943 16 05 40
faxes. 943 16 07 90
20240 ORDIZIA
ordizia@ikastola.net

